

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

AHOLKULARITZA JURIDIKOA

203/19 prozedura arruntean epea jartzea

2017/RJELU00071 dosierrean etxebizitza lehengo egoerara bihurtzeko Hirigintza Sailak 2019ko otsailaren 5ean emandako ebazpenaren kontra 10038236 nortasun-agiria duen pertsonak aurkeztutako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa —203/19 prozedura arrunta— izapidetzen ari delarik Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako 2. Epaitegia, beren interesetarako komenigarritzat jotzen dutenak bertara agertzeko epea jarri da Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 49.1 artikuluan xedatutakoaren ildotik, bederatzi eguneko epea, hain zuzen ere, lege beraren 23. artikuluari jarraiki.

Epe-jartze formalaren balioa izan dezan, hauxe eman eta sinatzen dut.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko uztailaren 1ean

Udal legelaria

YOSUNE IZQUIERDO CORRES